

11.Eranskina

“EL CIRCO DE LAS MARIPOSAS”

1. Atala: “El circo de las mariposas” pelikularen inguruan egindako hausnarketa txikia

Hausnarketa honetan, ikasleei argitu zaie, hasiera batean, pertsonaia lehenengo zirkuan dagoenean, hain txarto tratatua denez eta era guztietako irainak jasotzen dituenez, berak ere, ezertarako balio ez duela sinesten duela.

Bigarren zirkuan, aldiz, bertako langileek eta zuzendariak batez ere, pertsonaiak berari buruz dituen aurredeia guztiak alde batera usteratzen eta berarengan konfiantza izatera bultzatzen dute. Era horretan, proposatzen duen guztia lor ditzake, arrakastarekin gainera.

2. Atala: “¿Vas a acabar siendo fuerte? “hitzaldian transmititzen den mezua

Honetan transmititu egiten den mezu nagusia, behin eta berriro gauzak egiten saiatu behar garela da. Saiatzen garen bitartean, lortzeko aukera dugulako, eta saiatzen ez bagara, inoiz ere ez dugulako lortuko.

Beraz, bideoa ikusi eta gero, horren inguruko hausnarketa egiten egon dira. Ikasle batzuk, askotan gauzak egiten ezta saiatzen ez direla aitortu dute. Beste batzuk aldiz, behin saiatuta ez bazaiela ateratzen, berriro saiatzen ez direla aipatu dute. Hitzaldi horren bidez, gizonaren egoera ikusita, gauzak behin eta berriro saiatuz azkenean lortu daitezkeela ikusi dute, betiere, norberak bere buruarengan sinistuz.